

GAINDEGIAKO PRENTSA OHARRA

Gaur Bilbon, BBK eta EHUren egoitza nagusian, egin den "Ugalkortasunaren auzia etorkizuneko Euskal Herrian" demografia jardunaldian Mila Amurrio eta Ane Larrinagak, EHUko irakasleak, Amaia Elizagarate, soziologoak eta Marta Luxan EHUko irakasleak ondorengo gaiak jorratu dituzte hurrenez hurren:

- Sarrera hitzaldia: Euskal Herriko demografia zertan den (Mila Amurrio eta Ane Larrinaga)
- Euskal Herriko demografia eta ugalkortasuna, ezagutu beharreko datuak (Amaia Elizagarate)
- Prospekzio demografikoa. Zer datorkigu? (Marta Luxan)

Jardunaldian ideia eta datu ugari bildu dira eta jarraian ondorio nagusien edota datu esanguratsuenen bilduma duzue:

Sarrera hitzaldia: Euskal Herriko demografia zertan den (Mila Amurrio eta Ane Larrinaga)

- Euskal Herriko bilakaera demografikoa aztertzeke Europa mailan ezaguna den Bigaren Transizio Demografikoaren teoriari begiratu behar zaio. Aldaketa ekonomiko eta sozial handiak gertatu dira gure bizimoduan eta horrek zuzenean eragin du umeak izateko premia gutxitzen. Herri eskandinaviarretan orain zenbait hamarkada hasitako mugimendua Europako beste herrialde batzuetara eta gurera beranduago iritsi dira.
- Baina galdera nagusia "erreproduzitzeko arazoak dituen gizartea nolakoa da?" da. Galdera horrek, esaterako, lagun dezake ulertzen zergatik eragiten dion horrenbesteko kostea emakumeei gizarte eredu honek.
- Euskal Herriari begira jarrita, erreproduzitzeko zailtasun gehien Bizkaia, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoak dute. Baina, arrazoiak berdinak al dira kasu guztietan? Hau da, Euskal Herrian bertan dagoen heterogeneotasuna aintzat hartu gabe ezin dira ulertu Zuberoa eta Bizkaiko ugalkortasun tasa txikiak. Gure herrian bertan eredu sozio-demografiko desberdinak bizi dira aldi berean eta horrek azterketa zientifiko serioa eskatzen du. Hor dago soziologo eta demografoen etorkizuneko eginkizuna

Euskal Herriko demografia eta ugalkortasuna, ezagutu beharreko datuak (Amaia Elizagarate)

- Adin egitura: Euskal Herriko adin egiturak Europako Batasunakoaren oso antzekoa da, erronbo itxurakoa, gazteak baino gehiago dira helduak eta adinekoak.
- Jaiotzak eta heriotzak: Baina Euskal Herriko zahartze prozesua azkarragoa izan da Europa Batasuneko baino. 2004an munduan 21 haur jaio ziren 1000 pertsonako, Euskal Herrian 9,8. Europako Batasunean berriz, 10,7. Baina 1990-2000 arteko jaiotza tasa aztertzen badugu gurea zen tasarik txikiena. Ugalkortasun indize sintetikoa (zenbat jaiotza 15-49 urte bitarteko 1.000 emakumeko). 2004. urtean Euskal Herrian 18,8 haur Europako Batasunean 21,6. European 7 estatuk dute gurea baino indize txikiagoa. Zahartze indizeari dagokionez, berriz, (60 urtetik

gorako 100 laguneko zenbat gazte), Europako Batasuneko estatu batek ere ez du gurea bezainbestekorik (130), Italiak 125, Alemaniak 111). Euskal Herrialde guztien zahartze indizeak Europako Batasuneko altuenak dira.

- Etxeguneak: Etxeguneen %51tan hiru lagun edo gutxiago bizi dira eta %26,6ean pertsona baka edo bikotea bizi da. Euskal Herrian batez beste etxegune bakoitzean 2,8 lagun bizi dira, Europako Batasunean 2,5. Baina herrialdeen artean Lapurdik Europako Batasunak baino tasa baxuagoa du (2,3). Beraz, etxeguneak gero eta txikiago eta gero eta jende gehiago bakarrik bizitzen Euskal Herrian. Lapurdin %17,6 bakarrik bizi dira eta Euskal Herrian %8,7). Beraz, familia eredu aldatzen ari da, gero eta gehiago dira seme-alabarik gabeko bikoteak, eta oro har seme alaba gutxiago ditu bikoite bakoitzak.
- Guraso bakarreko familiak 122.436 dira Euskal Herrian (%15,4). Alemanian % 9,8, Frantziako estatuan %12,3 eta Espainiakoan %14,8). Europako Batasuneko rankinean erdialdeko posizioan gaude beraz (Espainiako Estatuak, Erresuma Batua eta Austriaren ondoan). Kasu gehienetan emakumea da burua (bost familiatik lautan). Beraz, gero eta familia eredu desberdin gehiago.
- Lan merkatua: emakumeen %82 zerbitzuetan ari da eta gizasemeen artean baino gehiago dira iraupen mugatuko kontratuak dutenak (%32).

Prospekzio demografikoa. Zer datorkigu? (Marta Luxan)

- Migrazio mugimenduak: Euskal Herriak harrera herria izaten jarraituko du. Baina ongi aztertu behar dira etorkinen jatorria eta maila ekonomikoa horrek izango dituen ondorioak iragartzeko. Ipar Euskal Herrian etorkin gehienak adin ertaineko frantsesak dira edo gipuzkoarrak dira. Hego Euskal Herrian, berriz, seme-alabak izateko adinean dauden herrialde pobreetako langileak. Bigarren talde honek populazio hazkundera eta jaiotzen hazkundera eragingo du.
- Generoa: Gizonezkoek ardurak gehiago bereganatuko balute etxeko lanen banaketan horrek ugalkortasun-tasak zertxobait igoko lituzke. Eta horrek aldi berean, zaintza lanetan ari diren aiton-amonen lan-karga arinduko luke.
- Familia harremanak aldatu egingo dira. Jaiotzak gutxitzearekin neba-arrebak edo lehengusu-lengusinak gutxiago izango dira, bai eta osaba-izebak ere, baina aldi berean pentsatzekoa da harreman mota berriak sortuko direla.
- Politika Publikoak: Politika hauek izango duten benetako eragina ikusteko dago. Baina pentsatzekoa da ez dutela berebiziko eraginik izango pertsonen ugalkortasunaren inguruan hartzen dituzten erabakietan. Laguntza ekonomikoak bakarrik ez du sustatuko ugalkortasuna, familia izateko erabakian egoera ekonomikoaz gain beste faktore askok eragiten dutelako. Gainera, gizonezkoek aitatasun baimena har dezaten ematen diren laguntzak handiagoak direla kontuan hartuta, horren berehalako eragin soziala da gizonezkoen denborak emakumezkoen denborak baino gehiago balio duela. Irudi hori lortu nahi den helburuaren kontra joan daiteke.
- Formazio aldia laburtzeak (unibertsitateko ikasketen iraupena laburtzen ari da...) ere lagun dezake pertsonen familia bat sortu eta seme-alabak izateko aukera goizago hartzea.
- Ez ditugu berriro ezagutuko baby boom garaiko ugalkortasun indizeetara (1965-1975) ez direlako berriro baldintza soziologiko berdinak errepikatuko.

Jardunaldiaren amaieran Xabier Isasi Gaindegiako lehendakariak oso balorazio positiboa egin du. Besteak beste honakoak azpimarratu ditu:

- Jardunaldi hau oso garrantzitsua da, izan ere garaiko gai ekonomiko edo sozialak ikuspegi zientifiko batetik Euskal Herri mailan aztertzen dituen lehenetakoa izan baita.
- Jardunaldi honetan bildutako ezagutzak erakusten digute Euskal Herriko gizarteak mendebaldeko gizarteen ezaugarriak betetzen dituela bete betean.
- Horrekin batera, agerian utzi du gure lurralde eremuan dagoen heterogenotasuna handia dela eta horrek aniztasun hori aintzat hartzea eskatzen duela, batez ere euskal lurraldeen arteko kohesio ekonomiko eta soziala nahiz garapen jasangarria bultzatu nahi baldin badira. Baina, aldi berean, Euskal Herriaren baitan kohesio maila handia dagoela demografiaren alderdi on eta txarrak aintzat hartuz.
- Gaindegiak, datozen urtetan gai hauen inguruko jardunaldi gehiago antolatzeko konpromisoa hartua du.